

IPUIN-SARIKETA

ordaiñetan, egin gura ez geunkezan ekintzak egin bear be. Amak eta biok asmorik ez putzu baltz orretan sartuteko, gure aitak baiña buru-belarri eutsi jautsok orri... Etxakiat zertan dabillen, baiña aitak ez jok geiago ama maite... Gure amari dongaro egariarazoten jautsok...

— Zer esan gura dok?

— Lurbirako baztar baten ala bestean jaio, ortxe jagok kakoa... Txina bizi aurreratu ta obatu dok azken urteotan; alan be, ez jaukagu zuek beste aukerarik... Emen albiste gitxi artzen dozuez Zhongguo'ren gorabeeran.

— Zhongguo'?

— Bai, "Erdialdeko Aginterria, Inperioa", Txina, alegia. Zeuon artean pozpozik bizi nauk, eta Jaungoikoa lagun, emen geratu gura geunke... Ama aitarengandik aldentuea gura neuskalk orratik.

— Orren txarto konpontzen dira biok, ala?

— Egia esatea gura ba"dok, alantxe dok.

— Bearbada aurrerantzean euren egoerea nasaituko dok.

— Ez deuat uste.

— Sartaldea be ez dok atsegin-baratzea.

— Jakiña. Emen geratu ezkerro, egunen baten euskeraz be jakasiko joat. Euskerarik badakik*?

— Neuk bai, baiña jente askok ez. Bizkaia'n euskereak sekulako atzerakoa egin jok... Izkuntzari jagokonez, euskaldunok geure etxean arrotzak bai'giñan bizi gozak.

— Guk Txina'n ez dogu txineraz berba egiteko oztoporik.

— Ikasi egik, alan eta guztiz be... Neuk apurtxu bat irakatsiko deuat.

— Orduan, euskaldun baserritar neska bategaz ezkonduko nauk.

— Asmo ederra dok ori; neska batzuk aurkeztuko deudadaz.

Bat-batean mutil biak barrearj emon eutsoen. Euren biotz xaloak, asmo zintzoek beteak... Bizi guztia aurretik eben oraindiño. An eta emen, toki guztietan txakurrak ortutsik... Wu ostera barriro goibeldu zan, eta negar anpulu batzuk urten jakozan, alkoolak lagunduta.

— Jakingo ba'eu... Aitak ama joten jok... Bein betiko aita izten azartuko ba'litxok...

Nasa_j, nasai Wu... Biar eguzkia urtengo da-ta GartxoCek ec iñaalak egin ebazan Txina'ko zorigeiztoko inuti I la azkortzen.

ASIER ETXABURUA

BIZTUKO

Ume jolasak dira txipli txapla uretan gogoa atsegin; erritar alkarrekin nork geiago zapaldu ur pozuaeren gain.

Abarka ta galtzerdi musikea etxean soiñuaz kantari; egunero bustirik egunero negarra jausten begiari.

Aro politak dira eguzkia goietan ura soloetan; gogoz biztuko dira lora zuri barriak sagar andarretan.

EGUZKIA

Sortzetik argizale jaio ziñan gizona urrezkoa zara, oi! zein eder dan goiza eguzkia agertzean zerutik lurrera.

Eguzki maitekorra sorkaldeko mendian agertzen da urrez; ta gizona begira lanera joateko kodain ta atxurrez.

PAULIN